

EZPATA-DANTZAREN SOÑUAN ITZ-NEURTUAK



Gaur ezpata-dantzari
Aurren azkendari,
Korpus ta San Juan
Dituztela gogoan,
Zaldibiatarrak
Gazte eta zarrak
Oi-dabilta dantzan
Beren erriko plazan;
Gozo edo miña
Martin danboliña
Arturik berekiñ
Errikardorekiñ,
Dantzari ariña
Omenda Kapagiña
Juan Martiñ,
Nik ori ongi jakiñ,
¡A! nolakoa
Olakoa,
Dantzatzen ezpata bi,
Ikusirik nago ni;
Aren anka,
Eta planta
Ez da ichusia
Plaza asko ikusia,
Geldi geldi geldi
Berdillariri
Erabilli konpasa;

Ez dakion pasa,
Martíñek badaki,
Nola erabaki,
Aren zortzikoa,
Ez du lendabizikoa,
Diego belcha
Asko oi-da alcha
Arturik ezpata,
Dantzari polit bat da.
Iru-chiki
Eta chiki chiki
Geinean aurrean
Biak alkarren parean.
Zubieta,
Badu beta
Dantzatzen zortzikoa
Gutziz da pijo;
Ermentaria,
Zer dantzaria,
Eta Lonjinos,
Ikusi ditut iñoiz.
Echerik eche
An ta emenche,
Gizonak eta mutillak,
Salto ta brinko
Egiñik pijo
Ustutzen dituzte botillak
Zeñek achi
Olako Pachi,
Erabilten ezpata;
Zankoak ariñ
Orain baldiñ
Arras galdu ezpada.

IZTUETA.

